

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

*Arantzazu Kortabarria Barrenetxea-
Arando*

*Bergara,
Gipuzkoa
(1952)*

Aurkibidea



Biografia



Zubieta auzoan jaioa, guraso biak Bergarakoak zituen. Ama, Mariñe (Ahotsak-erako [elkarrizketatua](#)), gazte-gaztetatik Arando tabernan lanean ibilia. Arantzazuk (lantokikoek Arantxa deitzen diote) Mariaren Lagundian egin zituen ikasketak, umetan hasita Batxilergo laborala egin arte. Gero Donostiara joan zen Magisteritza ikastera; han zegoela euskaraz alfabetatzeko ikastaroak ere egin zituen. Bueltan, Bergarako Aranzadi ikastolan egin zuen lan, bi urtez. Ondoren Iralan ibili zen, ikastetxe publikoan, oposizioak aterata. 6-7 urteko umeekin egin du lana beti, erretiroa hartu zuen arte. Herri eskolaren euskalduntze-prozesua kontatu zigun elkarrizketan.

Zintak

BER-368

- **Proiektua:** Euskararen historia soziala Bergaran
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2022-02-16
- **Iraupena:** 61 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Etxean beti euskaraz

- **Erref:** BER-368/003
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:01:53. **Bukatu:** 00:02:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Etxean dena euskaraz eta osaba-izeba edo lehengusuekin ere bai. Amaren osabek taberna zuten, Arandonekoa (Bergarako bigarren batzokia). Kalean gaztelaniaz egiten zuten, auzoko lagunek hala egiten zutelako.

2. Mojen eskolan dena gaztelaniaz

- **Erref:** BER-368/005
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:03:25. **Bukatu:** 00:06:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Etxean dena euskaraz, baina kalean eta eskolan dena gaztelaniaz. Mojetara joan zen. Gaizki pasatu zuen umetan gaztelaniaz ez zekielako, baina zigorrik ez zuen jaso sekula horregatik. Bidegurutzetan bazkaltzen zuen aitajauna-amandreen etxean eta amamak "Así es España" liburuko orri bat irakurrarazten zien egunero. Moja batekin gertatutako pasadizoa

3. Mojen eskolan kategoria ezberdinak

- **Erref:** BER-368/006
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:06:16. **Bukatu:** 00:08:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Mojen eskolan kategoria ezberdinak zeuden: barneko ikasle gisa zeudenak, eskolengatik ordaintzen zutenak eta ordaintzen ez zutenak. Bera ordaindutako eskoletan ibili zen. Bi uniformeak zeuzkaten: egunerorako bat eta egun bereziatarako beste bat. Zapatilak izaten zituzten eskolan, bertan aldatzeko eta baita amantala ere. Elizara joateko beloa ere bai.

4. Magisteritza ikastera Donostiara

- **Erref:** BER-368/009
- **Iraupena:** 0:03:49. **Hasi:** 00:10:22. **Bukatu:** 00:14:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Batxiler laborala egin zuen, zazpi urtekoa, Mariaren Lagundia eskolan. Gero Donostiara joan zen Magisteritza ikastera. Ikasketak bukatutakoan, Bergarako ikastolan ibili zen lanean bi urtez eta gero kabinete psikopedagogiko batean beste hiru urtez. 1979an Iralan, ikastetxe publikoan, hasi zen lanean, oposizioak aterata. Magisteritza ikasten ibili zenean, Donostian egon zen Andereñoen erresidentzian eta eskolaz kanpo euskara-klaseak jaso zituen.

5. 1974an Bergarako ikastolara lanera

- **Erref:** BER-368/011
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:16:50. **Bukatu:** 00:19:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

1973an Antzuolako ikastolan egon zen hilabete batzuetan, ordezkapen bat egiten. Gero, 1974an Bergarako ikastolan hasi zen lanean. 6-7 urteko umeekin lan egin du beti. Ikastolatik egiten ziren diru batzeak. Taberna jartzen zen. Gogoan du behin kantuan eskean batutako dirua Segurako umezurztegi batera eraman zutela.

6. Cainzosekin heziketa berezia eta psikomotrizitatea lantzerak

- **Erref:** BER-368/014
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:21:40. **Bukatu:** 00:23:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Begarako ikastolatik Cainzosek zuzentzen zuen psikopedagogia kabinetera joan zen, beste leku batzuetan lantzen ez ziren arloak lantzeko: heziketa berezia, psikomotrizitatea... Han zegoela, Iralako plantillan sartu zuten, soldata delegaritzatik jaso ahal izateko. Oposizioak atera eta zuzenean Iralan hasi zen gero.

7. Irakasle lana prestigio gutxikoa

- **Erref:** BER-368/015
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:23:00. **Bukatu:** 00:24:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Magisteritza ikasteko erabakia hartu zuenean, askok ez zuten ulertzen, Fagorren katean lanean gehiago irabazten zelako. Irakasle lana prestigio gutxikoa zen, batez ere gizonezkoa izanez gero. 25 urte zituenean, bera zen lagun-taldean goi-mailako ikasketak zituen bakarra eta gutxien irabazten zuena.

8. Irala ikastetxe publikoaren euskalduntze prozesua

- **Erref:** BER-368/016
- **Iraupena:** 0:05:17. **Hasi:** 00:24:16. **Bukatu:** 00:29:33

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

Laburpena:

1973an Irala ikastetxe publikoa egin zenean, irakasle guztiak erdaldunak ziren eta gaztelaniaz zen dena. Neskak eta mutilak aparte zeuden. 1976an hasi ziren euskara sartzen: Arantzazu eta beste hiru neska bergarar joaten ziren euskara klaseak ematera egunero ordu bietatik hiruretara. 1977an jada horretarako irakasle aproposak bidali zituen delegaritzak eta astean hiru ordu ematen zituzten gelaz gela. Maria Pilar Lonarbidek Ikusi-makusi metodoa atera zuen eta haur hezkuntzan erabiltzen hasi zen. 1978an elkartu ziren neskak eta mutilak. 1980an klase elebidunak: goizez gaztelaniaz eta arratsalde euskaraz. Ikusi-makusi metodoa nola garatu zuten gero. Lan handia egin zuten urte horietan, baina jendea oso motibatuta eta edozertarako prest zegoen. Barnetegira ere joaten ziren Alkizara 15 egunerako.

9. D eredua lortzea kosta egin zitzaien Irala ikastetxean

- **Erref:** BER-368/018
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:30:05. **Bukatu:** 00:32:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskararen historia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Irala ikastetxe publikoan, euskara sartzen hasi zirenean, B eredua eman zieten. D eredua lortu ezinik ibili ziren, administrazioari iruditzen zitzaiolako beraiei zegokiena B eredua zela. Irakasleek sekulako lana egin zuten euskara ikasten. Prozesua ez zen erraza izan; askotan laguntasun gutxi izan zuten.

10. Ikastetxeko betiko ohiturak: aratusteetako hartza, Olentzero

- **Erref:** BER-368/021
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:35:46. **Bukatu:** 00:36:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

Laburpena:

Irala ikastetxean hartza atera izan dute beti aratusteetan. Gabonetan

Olentzerorekin ere ateratzen ziren. Ahalegin handia egin ostean, herri-mailako ekintza bateratua izatea lortu zuten.

11. Euskara eskolatik kanpo ere bultzatzea beharrezkoa

- **Erref:** BER-368/022
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 00:36:59. **Bukatu:** 00:41:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Gaztea zenean, Bergaran kalean dena gaztelaniaz entzuten zen. Egungo egoera. Gaur egun euskara gehiago entzuten dela eta euskalduntzen ari dela uste du. Euskalduntzean, pisu guztia ezin dela hezkuntzan jarri entzun zion Ignasi Vilari. Garai batean Bartzelonara, Madrilera... joan behar izaten ziren ikastaroetara. Beharrezkoa da euskara hezkuntzaz kanpoko beste eremu batzuetara ere zabaltzea, eta, ikasteaz gain, gustukoa izatea.

12. "Juventudes parroquiales"ek antolatutako musika jaialdiak

- **Erref:** BER-368/024
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:42:19. **Bukatu:** 00:43:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

"Juventudes parroquiales" elkartetik jaialdiak antolatzen ziren frontoian eta musika taldeak ekartzen ziren: Formula V, Mocedades, Pantxoa eta Peio... Bera elkarteko bazkide zen. Jaialdi guztietara joaten ziren gaztetan. Bergarako Urretxindorrek eta Ameslariak taldeak.

13. Bergarako jaietako "estapak" eta Maria Txantxote

- **Erref:** BER-368/027
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:45:41. **Bukatu:** 00:47:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>70eko hamarkadan Bergarako jaietan "estampak" ateratzen ziren. Udalak antolatzen zuen eta sariak ere egoten ziren. Talde bakoitzak gai baten inguruan antzezpen antzekoa edo desfilea egiten zuen kalean. Maria Txantxotek egiten zuen lan handiena estampak prestatzen. Gerra aurreko irakaslea zen, gerra sasoian umeeekin Belgikan egona. Handik itzultzean, Irala ikastetxean sartu zen.</p>

14. "Promoción cultural" en bitartez antolatu zen kabinete psikologikoa

- **Erref:** BER-368/030
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:52:19. **Bukatu:** 00:53:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

"Promoción Cultural" elkarteak gauza asko antolatzen zituen. Haren bitartez antolatu zen berak lan egin zuen kabinete psikologikoa. Garai batean bertako langile bakoitzaren ordubeteko lanari zegokion soldata elkartera bideratzea zen filosofia.

15. Arando taberna eta gerra sasoiko kontuak

- **Erref:** BER-368/032
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:55:23. **Bukatu:** 00:57:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Arando tabernako giroa. Aitajauna bertsolaria zen. Amaren osaba gizon berezia zen. Hura izan zen tomateak gordinik jaten hasi zen lehena Bergaran, gerra sasoian etorritako soldadu nafarrak hala egiten ikusita. Gerra sasoiko kontu gutxi kontatzen zen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-02-15

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com